

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

329/2019 Foru Agindua, azaroaren 21ekoa, interes publikoa aitortzen diona Ziorragatik hurbil dagoen 3 poligonoko 706-A lurzatian, Zigoitiko lurzoru urbanizaezinean, telefonía mugikorrek deien banagunea jartzeko Telefónica Móviles España SAK sustatutako proiektuari

Telefónica Móviles España SAK Zuiako Udalari obra baimena eskatu dio telefono mugikorrek deien banagune bat jartzeko, eta hura egiteko 25 metro luzeko sareta dorre bat jartzeko, 3,50x4,50 metroko esparru hesitu baten barruan, Ziorraga herritik hurbil, 706-A lurzatian, 3 poligonoan, lurzoru urbanizaezinean.

Zuiako Udalak espediente bat bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago aurkezturiko proiektu tekniko ikus-onetsia, telefono mugikorrek deien banagune bat jartzeari buruzkoa (0100515 Ziorraga COC: 201806002629), baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinetan adierazten baita lurzatia lurzoru urbanizaezinean dagoela, Gorbeia Parke Naturalaren babeseko eremuan (Z1) eta errepideen babes eremuan, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, eta, beraz, dagozkion baimenak eskuratu beharko dira interes publikoaren adierazpenaz gain.

Proiektuaren deskripzio memorian adierazten da PEBA edo Banda Zabala Hedatzeko Programaren barruan dagoela, eta haren helburua dela azkartzea abiadura handiko eta oso handiko banda zabaleko zerbitzuak gaur egun estaldurarik ez duten eta, aurreikus daitekeenez, hurrengo urteetan ere izango ez duten zonei emateko gauza diren komunikazio elektronikoko sareen estalduraren hedapena. Gobernu Kontseiluaren martxoaren 22ko 143/2016 Erabakiaren bidez, onetsi zen AFaren 2015-2019 legegintzaldirako Plan Estrategikoa. Haren barruan, lerro estrategikoa hau zehazten da: "7.4.2 Araba Konektaturik programa abian jartzea. Guztientzako estaldura Arabako landa ingurunean".

Proiektuak, gainera, zehazten du banaguneak bete egin beharko duela Gorbeia Natura Baliabideak Antolatze Planak (NBAP) eta Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak (EKZP) ezarritako araudia eta Gorbeia (ES2110009) Parke Naturaleko eta kontserbazio bereziko eremuko (KBE) kudeaketa ildoan eta jardueren agiria, eta aurreikusten du, halaber, ingurumen inpaktuaren azterketa egitea, jardueraren ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egin behar baita. Horiek horrela, espedientean dago Ingurumen eta Hirigintza Sailako Ingurumen Ebaluazioaren Atalak igorritako jakinarazpena, zeinak obrari buruzko informazioa jasotzen baitu 19-123 espedientean, zeinak Telefónica Móviles España SAKen proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioa arrunta izapidetzen baitu.

ONARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientearen ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogen egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Urriaren 3ko 256/2019 Foru Aginduen bidez, hasierako onespina eman zitzaion espedienteari, eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia ireki zen, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea 2019ko urriaren 11ko ALHAOn (118. zenbakia) argitaratu zen. Ez da aurkeztu inolako alegaziorik horretarako emandako epean.

Zuiako arau subsidiarioen 139. artikulua eremu bakoitzean baimendutako erabilera eta jardueri buruzkoa da, eta erabilera publikoko eta gizarte intereseko azpiegiturei buruzko apartatua, honako hau jasotzen du: "Lurzoru urbanizaezineko zona guztietan instala daitezke. Hala ere, ezin izango dira jarri organo eskudunak instalazio horietarako baimena lortzeko izapidetze prozesuan egokitzen hartzen ez dituen instalazioak..." 2. apartatua Gorbeiaiko parke naturala babes bereziko 1 zonari buruzkoa da, eta honako hau ezartzen du: "Antolamendu planean Gorbeiaiko Baliabide Naturalak izeneko eremua jasotzen da, bai eta haren lurralde antolamenduari buruzko agiriak ere, esaterako, Baliabide Naturalak Antolatze Plan eta Erabilera eta Kudeaketa Plan Zuzentzailea (...) Erabilera debekatuak: bizitegi eraikinak, turismo eta kanpin kanpalekuak, eta erabilera baimendu gisa adierazi ez diren erabilera guztiak".

Aztertutako kasuaren interes publikoari dagokionez, maiatzaren 9ko 9/2014 Legea aplikatu behar da, zeinaren 2. artikulua hau ezartzen baitu: "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira", eta 3.c artikulua beste hau: "Komunikazio elektronikoaren sareak zabaltzea eta zerbitzuak ematea sustatzea, mutur batetik bestera konektibitate eta interoperabilitatea sustatuta, bai eta sarbidea ere, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan".

Telekomunikazioen lege orokor horrek, III. tituluaren (Zerbitzu publikoaren betebeharrak eta eskubide zein betebeharrak publikoak, komunikazio elektronikoaren sareak ustiatzean eta zerbitzuak ematean), II. kapituluaren 2. atalean, komunikazio elektronikoaren sare publikoak hedatzeari eragiten dion herri administrazioen araudiari buruzko epigrafean, hau xedatzen du 34.2 artikuluan: "komunikazio elektronikoaren sare publikoak oinarritzeko ekipamenduak dira (...). Haiek jartzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira".

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan, proiektuan adierazten den bezala.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa aitortzea Ziorragatik hurbil dagoen 3 poligonoko 706-A lurzatian, Zigoitiko lurzoru urbanizaezinean, telefonia mugikorrek deien banagunea jartzeko Telefónica Móviles España S.A. sustatutako proiektuari, bat etorritik Lurzoruari eta Hirgintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoaren adierazpenak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsioa.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 21a

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO